



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/19 Udaletxean 18.30-20.30



### Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Eñaut Agirre (Herritarra)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Jose M<sup>a</sup> Gomez (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Emilia Roman (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Jose Miguel Santamaria (Alkatea)
- Angelica Moreno (EAJ)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Iñaki Erauskin (Sasiet)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bileran ondoko gaiak landu ziren (erabilitako aurkezpena atxikitzen da):

1. **Sasietako azterketa teknikoaren aurkezpena (bi hizkuntzatan)**
2. **Kronogramaren aurkezpena**

### Azterketa teknikoaren aurkezpena

Alkateak mahaiaren aurkezpena egin du eta mahai honen helburua kontsulta egitea dela esan du eta hortarako aurretik akordio politiko bat egon dela (talde politiko guztiena) bertan gaur egungo gaikako bilketa mantentzea ere onartu zela.

Bestalde, mahaiari prozesua ereduzkoa izateko gaitasuna eskatzen dio eta bertatik eztabaida politikoa ateratzeko. Hortarako, mahaiko buru pertsona tekniko bat da.

Bilera hasieran erabili den hizkuntzarengatik kexa bat egon da eta bi hizkuntza ofizialetan egitea erabaki da.

Landarlan elkartetik aurretik helbide elektronikoz bidalitako Sasietako azterketa teknikoaren soilik gazteleraz dagoela esan dute eta euskarazko bertsioa eskatu dute.

Sasietako Iñaki Erauskinek edukiontzien bidezko bilketaren eredu ezberdinak aurkeztu ditu.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/19 Udaletxean 18.30-20.30



Edukiontzia

kolektiboak:

A1- tradizionala (atez-atekoa baino lehen Ordizian zegoena). Beasainen, Urretxun eta Zumarragan. Edukiontzia berdea, guztia irensten duena. Ez du inon %50eko gaikako bilketa tasa lortu. Egunero husten da, eta egunero erabil liteke.

A2- Edukiontzia grisa, txikiagoa, eta "aho" txikiagoa ere, eta chip-a badu ere, egunero erabil liteke, baina astean 3 aldiz husten da. Organikoak edukiontzi marroia. Lazkaon jarri dena. Lazkaon emaitza onak eman ditu lehen hilabetetan, atez atekotik datozelako eta ohiturak mantendu direlako.

A3.- Aurrekoaren berbera, baina errefusaren edukiontzia ezin da egunero zabaldu. Chip-a programatzen da astean 3 egunetan irekitzeko.

A4.- Edukiontzia berberak, baina errefusaren grisa astean behin bakarrik zabaldu liteke. Zegama, Olaberria eta Idiazabalen dago.

\* sistema guztietan pixoihalak biltzeko edukiontzi bereziak daude, eta beharra dutenek noiznahi erabili ditzakete.

Beasain, Zumarraga eta Urretxun beraien sistemak optimizatuko dituzte 2016an, edukiontzi tradizioaletik edukiontzi grisera pasako dira.

Sasietako ordezkariak zaborraren turismoa delako gezurtatu du, Atez Atekoaren Aurkako Plataformako kideak Zegama sistema berria ezarri eta emaitza oso onak lortu direla esatean, hondakinak Beasainera joango zirela iradokitzean. Zegaman tona berberak jaso dituztela adierazi du, eta ondorioz, zaborrik ez dela galdu. Are eta gehiago, Ordizian atez atekoa jarri zenetik, Beasaingo hondakinen kopurua igo ordez jaitsi egin da, eta Malkaskoko muga dauden Beasaingo edukiontzien ez dute gainezka inoiz egin.

B eredia mistoa da, atez-ate errefusa biltzen da soilik. Itsasondon jarri zen eta izen horrekin ezagutzen da, nahiz eta gaur egun han atez atekoa purua duten. Ataun eta Ormaiztegin erabili da. Araman, errefusa ez ezik, organikoa ere jasotzen da atez ate. Gainontzeko hondakinak edukiontzi kolektiboetan jasotzen dira.

Eredu guztietatik, adostutako %70 biltzeko gai dira guztiak, A1 eredia izan ezik.

Eredu hauen arteko ezberdintasunak azaldu dizkigu eta Goierriko beste udalerrietan zein eredu dagoen eta zein hondakinen bereizketa tasa duten azaldu digu.

Komertzioek bilketarako beste zerbitzu propio bat dute, hau Ordiziarako beharrezkoa dena. Bilduko ordezkariak galdetzen du, orduan atez atekoak jarraituko duela, ea zergatik ez den horrela adierazten. Sasietako teknikariak bilketa berezia delako dio, merkatarien ate aurrean jasoko den bilketa berezia. Bilduko ordezkariak erantzuten dio, hori atez atekoa dela, eta ez dakiela zergatik nahi denean hitz batzuk erabili litezkeen, eta bestetan ez. Gaiarekin jarraituz, Bilduko ordezkariak galdetzen du, ea edozein edukiontzi kolektiboko sistemara aldatu ezker, hauek eraginkorrak izateko, ea merkatariarentzat atez

Ordizia

2 / 5



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/19 Udaletxean 18.30-20.30



ateko bilketak, edo dendarien ate aurrean jasotzen den bilketa bereziarekin jarraitzea ezinbestekoa den, eta baietz erantzuten du Sasietako ordezkariak.

Kamioi berezi bat erosi dute hainbat lan egiteko: komertzioetako bilketa, errepasoko zerbitzua egiteko, .....

Ordiziako kasurako eredu ezberdinek duten kostua azaldu digu, baina kostu honen balioa da bilketarengatik ordaintzen den kopurua. Ez da mankomunitateari ordaintzen zaion kostu osoa.

Ordiziak ordaintzen duen kostu osoan, bilketarengatik ordaintzen dena, tratamenduarengatik ordaintzen dena eta hondakinen birziklapenengatik jasotzen dena kontutan hartzen da.

Partehartzaile batzuek kostu horren informazioa eskatu dute. Bereizketa tasaren araberakoa baita kostu hau.

Gaur egungo sistema aldatzen bada aldaketa hauek egongo dira: plantilla aldetik murrizpena, 6 langiletik 4 langile izatera igaroko zela esan zen, kamioi berria eta edukiontziak erosi beharra.

Partehartzaile batzuk edukiontziak nork erosi behar dituen eta Goierriko beste udalerrietako edukiontziak norenak diren galdetu zuten.

Sasietak, edukiontziak nork ordainduko dituen oraindik hitz egin gabe dagoela eta beste udalerrietan dauden edukiontziak mankomunitatekoak direla esan zuen.

Landarlanetik, atez-ate sisteman egin diren hainbat aldaketa ez direla esan adierazten da. Adb: Goierriko beste udalerrietan organikoaren bilketa 3 egunetik 2 egunera jaitsi da, bilketa ez da asteburuetan egiten, egun batean bi frakzio batera biltzen dira eta gauzez bildu beharrean orain egunez biltzen da, honela sistema honen gastuak merketuz.

Sasietak aldaketa hauek 2014an egin zirela eta aurreko Ordiziako Udal Gobernuari azaldu zitzaizkiola esan du baina ez zituztela onartu, ondorioz ez dituela aurkeztu eta gainera, udalerraren tipologiaren araberakoak direla komentatu du.

Edukiontziak txipa dutenez zer kontrolatzen dan galdetzen da.

Datuen lektura egiten dute. Zeintzuk erabili duten. Norbait arazo batekin badugu informazioa edukitzeko da.

Atez atekoarekin kontrol indibidualagoa da.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/19 Udaletxean 18.30-20.30



Edukiontzia grisean mugak jarri behar dira. Edukiontzia honen erabilpeneari. Grisa erabili beharrean bestea erabiltzeko.

Udalerrriak Sasietara ordaintzen dute hiru kontzeptu hauengatik:

- Bilketa sistemaren arabera.
- Tratamenduko kostuen arabera (errefusa eta organikoa)
- Jasotzen dena birziklatzeagatik.

Gainera, ontzien kasuan atez-ateko bilketan biltzen den ontzien tonelada gehiago ordaintzen da edukiontzietako baino, inpropio gutxiago daudelako, kalitate hobegokoa delako.

Landarlanetik zabor tasaren prezioan sortzen dugunaren arabera ordainketa bultzatu beharko litzatekela esaten du. Usurbilen egiten den moduan.

Zabor tasa Udal kompetentziko da, tasen azterketa Udalak egin behar du. Atez-ateko sistemak aukera gehiago ematen ditu sortzen denaren arabera tasa aplikatzeko, baina edukiontzietan ere egin daiteke. Hainbat lekutan egiten da baina oraindik ez du ondo funtzionatzen.

BILDU-k Tolosako ereduaren inguruko aipamenik ez dela egin esan du.

Sasietak, Tolosako ereduak ez zaiela gehiegi gustatzen esan du. Sarrailak ez diela ondo funtzionatu. Tolosan, bakoitzak astean behin irekitzeko aukera du, bakoitzak erabakitzen du zein egunetan. Edukiontzian egunero dago hondakina. Behin irekitzen da eta konturatu gabe ixten bada ezin da berriro ireki hurrengo asterarte. Puntu bakoitzean portal ezberdinetako edukiontzi txikiak daude.

Landarlanek, hondakinen bereizketa tasa hondakin mahai honetan adostu behar dela esan du.

Denak baietz esan dute.

### Kronogramaren aurkezpena

Aurreikusten den kronograma osoa ez da aurkeztu denbora faltagatik.

### Hurrengo bilera

Urtarrilaren 26an arratsaldeko 18:30etan Ordiziako Batzar Aretuan.

Bertan, alde zuzenetik emandako prozedimendua landuko da eta kontsultara emango den galdera adosten hasiko gara. Sasietatik Ordiziako Udalak Mankomunitateari 2016an egin beharreko Udal ekarpena (aurreikuspena) azalduko du.

Ordizia

4 / 5



**Ordiziako hondakin mahaiaren  
bilera**

**16/01/19 Udaletxean 18.30-20.30**



Bestalde, galdera honek Ministroen kontseilutik pasa behar al duen erabakiko dugu.

**Ordizia**

5 / 5